

# EUSKERAZKO AKATSAK ZUZENTZEN

- 1.- Emio'n "BLAKRUZISA" egin dute... (EITB, 89'go-III-23'an).  
Gurutzbidea, egin dute, kalbarioak egin dituzte...
- 2.- Prozesioak ospatzen dira.. (EITB, 89'go-III-23'an).  
Ospatu ez dira ospatzen, egin egiten dituzte prozesioak.
- 3.- Lau mila dolar artuko dute (EITB, 89'go-III-23'an).  
Lau mila dolar artuko dituzte.
- 4.-...zerbait egiteko asmoa ezertan gelditu da (EITB 89'go-IV-2'an).  
Ori ez da euskera! "Ezertan ez dira gelditu... Utsean gelditu dira...
- 5.- Ez da ezagutzen artu duten erabakia (EITB 89'go-IV-2'an).  
Arazoa ez da "ezagutzea". jakitea da baizik.
- 6.- Ez da ezagutzen oraingo egoera (EITB 89'go-IV-2'an).  
Ez da ezaguna... ez dakigu... ez dakite albistariak...
- 7.- Itsasoan ekaitza dago (EITB 89'go-IV-4'an).  
Zer egingo ote luke, baldin ba'lebjl? Ez da egoten!!!  
Ekaitza sortu da... Ekajtza dabil... Indar arto du ekaitzak...
- 8.- Datorren astean ezagutuko da erabakia (EITB 89'go-IV-15'ean).  
Zabalduko da... agertuko da... Jakingo dugu... Jakjtera emango dute...
- 9.- Ilketan parte materiala artu zuelako (EITB 89'go-IV-19'an).  
Nolako "materiala" ote zan ori?  
Itzailleetako bat izan zalako... Ekintzajlleetako bat izan zalako ilketan...
- 10.- "Suposatu..." (EITB ortan mila eratar, beti suposatu diote).  
Ez al daukate itz egokiagorjk, bearren erara erabiltzeko?
- 11.- "Okintzategia" ageri da Ernani'ko berebil batean.  
Okindegia... ogitegia...
- 12.- Zenbat urte du neskatxa orrek? EITBin Amatiño'k barra-barra.  
Zenbat urte ditu.
- 13.- Abstentziorik aundjena ezagutu da (EITB 89'go-III-15'ean).  
Norbaitek ezagutzen du, lenengo. Gaizki dago, beraz.  
Besterik, obe litzake onelatsu: "Ezagutu duten abstentziorik aundjena jzan da..  
Jakin dugunez, orajn arteko abstentziorik aundjena izan da...
- 14.- Konzjerto Sakro bat eskeiñi dute (EITB 89'go-III-15'ean).  
Elizako musjkaldi bat eratu dute. Eskeiñi bakarrik?

\*

- 1.- Bi buruek itzaldi bana emanez (EITB 89'go-V-1'ean).  
Itzaldiak eta mintzaldiak EGIN EGITEN ditugu euskeraz.
- 2.- Laiño txjkiak izango dira batez ere ballaratan (EITB, 89'go-V-1'an).  
Ballaratan ez-baiña, aranetan, ibarretan, mendarteetan...
- 3.- Erantzun zintzoa eman du... (EITB, 89'go-VII-24'an).  
Erantzun zuzena, eta obeto orajndik zuzeneko erantzuna.
- 4.- Dagoaneko ez dute ezer aurkitu (EITB 89go-VII-24'an).  
Beti oker darabilte "dagoaneko" itza. Oraindjk ez dute...
- 5.- Najz Paternina-taldeko gizonak lanean egon... (EITB 89'go-VII-25'ean).

Txirringulari—taldeaz ari zan edo mjtzo zan, beraz... egon ez ziran egongo, eta lanean gutxiago. Taldeko gizonak gogor ari ziran...

6.—Taldeak jrestea lortu ditu (EITB 89'go—VII-25'ean).

Zer esan naj ote zuten? Taldean irestea lortu dute? Aiek irestea lortu du taldeak?

7.—Egazkiñak 300 lagun zeraman (EITB 89—VII-28'an).

Irureun lagun zeramatzan.

8.—Artu basoa ta zerbitzatu. (EITB 89'90...).

Artu basoa ta serbi itzazu,...zerbi ezaiezu...

9.—Latiñezko irakaslea (EITB).

Ezur—mamizko irakasle izango zan, noski, ez latiñezko.

Latiñeko irakasle... latin—izkuntzako irakasle...

10.—Batzarra jasoko dugu... Batzarra altxako dugu... (Billasante'k).

Batzarra amaitu, bukatu... Batzarraldia bukatu...

**Gaztañaga'tar Jesus**

1989